

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAIANA

martxoak **19** marzo **2021**

LA MISIÓN ES FRATERNIDAD



MISIOA SENIDETASUNA DA



elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES

Plaza Nueva, 4 – 2ª Planta – 48005 BILBAO

Teléfono: 94 401.36.99

e-mail: misiobi@bizkeliza.org.

www.misioak.org

“MISINOA, SENIDETASUNA DA”

2021.eko martxoaren 19a

Agur bat,

Eleizbarrutietako Misinoetarako Ordezkaritzatik datorren martxoan egingo dogun kanpaina honen barri emon gura deusuegu.

Ekitaldi honetarako aukeratu dogun goiburuak aurreko urteetako eskema bera dau: 2019an, Misinoak aldatu egiten zaitu, 2020an, Misinoa, bizia da eta 2021ean, Misinoa, senidetasuna da.

Hona hemen urte honetarako jarri doguzan helburuak:

- **Misiolari alderdia baloratu eta sustatu**, edonon egonda be gure bizitza Misino bihurtzeko dinoskun Aita Santuaren deia geure eginez.
- **Misiolari alderdia itxaropen-iturri lez aurkeztu**. Gure misiolariak, hartu dituan alkarteagaz batera, egiten daben lana gehiago agertzera emon.
- **Misinoaren senidetasun-sena geure egin** *Fratelli Tutti* idazkitik eta ALKARTE ABEGITSUAK egitera zuzendu.

Iaz, pandemiaren eraginez, hainbat batzar itzi behar izan genduan bertan behera eta komunikabideetan baino ez ginan azaldu eta aurtengo egoera ez da askoz hobea. Hasieratik, hartu-emon estuan egon gara misiolariak eta euren lekukotasunaren bidez pandemiak are eta ahulago egin dituan alkarte hareen barri jaso dogu. Zuotako askoren alkartasun eta ekarpenari esker, misinoetatik heldu jakuzan egoera larriei aurre egiten laguntzeko aukera izan dogu:

Misiolari jardueran ardurakidetasuna sendotuz, alkarte abegitsuak egiten doguz. Gure misiolariengandik gertu eta eurek aurkezten deuskuen errealidadearen aurrean adi egonez, alkarte abegitsuak egiten doguz.

Hauxe esan eban aita santuak gazteak izan eban batzar batean: *“Ezinbestekoa da euskarria eta laguntza emongo deuskun alkarte, eta bertan alkarri laguntzea danok batera aurrera egin daigun. Garrantzitsua da, gero, alkarregaz amets egitea!”*.

Misiolari batek egun honetarako hausnarketan gogoratzen deuskunez: *“Eleizbarrutietako Misino lez jarduteak misino eta egitismo bera daben anai eta arreba sentitzeak zelako garrantzia dauan ikusarazi deusku”*.

Senidetasuna lantzen jarraitu gura dogu eta, Eleiza misiolari lez, bidelagun doguzan alkarteen gizarte, eleiz eta politika egoera ezagutzera emon. Horretarako, **“URRATS SOLIDARIOAK” 2021eko IBILALDI MISIOLARIAN** parte hartzera deitzen zaituegu. Ibilaldi horretan, Ekuador, Mozambike eta Boliviako hiru talde misiolarigaz kontaktatuko dogu eta euren lekukotasun eta hausnarketakaz aberastu egingo gaitue.

Honako honegaz batera, kanpainarako lagungarriak jasoko dozuez: Gure Eleizbarrutietako gotzainen gutuna; Eleizbarrutietako Misinoen egunerako liturgia lagungarriak; power pointa ospakizun eta taldeetan erabilteko eta kartelak (Ordezkaritzan gehiago eskatu daitezue). Kanpainaren inguruan gehiago jakiteko: www.misioak.org.

Eskerrik asko, aldeztu aurretik, zuon laguntza eta eskuzabaltasunagaitik.

Felicitas Martin Fdez.
Misinoetarako Bilboko Eleizbarrutiko Ordezcaria

Misiolariak Aita-bihotzez

Euskal Elizbarrutietako Misioen aurtengo jardunaldiak, San Jose egunez ospatzen dugunak, esanahi berezia hartzen du oraingo honetan; izan ere, San Jose Urtea izendatu du Frantzisko Aita Santuak 2021a; San Jose Eliza Unibertsalaren zaindaria aitortua izan zeneko 150. urteurrenaren oroitzapena ospatzea da izendapen honen zergatia.

Asmo hau dela eta, Aita Santuak idatzi digun Gutun Apostolikoak, PATRIS CORDE (Aita-bihotzez) izenburu duenak, gu guztion zaindaria santua denaren zazpi ezaugarri aipatzen ditu, eta egoki eta bidezkoa da ezaugarri horiek ereduazko misiolari orori buruz esatea; baina «misiolari» hitza erabiltzean, ez gara ari urrutietara joanak direnei buruz bakarrik, baita hemen gaudenoi buruz ere, hain zuzen bataioko sakramentuan denok hartu dugu misiolari izateko bokazioa.

1. *Aita maitatua*

Hona hemen misiolari-bokazioaren abiapuntua: Jainkoak guk merezi izan gabe eta doan maite gaituela bene-benetan jakitea. Doan maitatua izan dela dastatu eta Jainko Aitaren maitasun betikoa eta neurrigabea sumatu duena da egiaz misiolari, Jainkoaren ontasun hori baita diren guztien jatorria. Izan ere, bizia eman ahal izateko, beharrezko da biziaren zentzua aurkitzea. Maitasunetik gatozela eta, sufrimendua eta heriotza gainditurik, berriro maitasunerantz goazela dakigunean bakarrik eman dezakegu geu garenaren onena eskuzabaltasun eta alaitasunez.

2. *Aita samurtasunean*

Sarritan, samurtasun hitza amatasunari buruz bakarrik erabili izan da; baina, giza aitatasunak Jainko Aitaren samurtasun mugagabearen adierazgarri ere izan behar du. Misiolariak esku beteka isurtzen du Jainkoaren samurtasuna eta mundu honetan azkenekoetan azkenekotzat hartuak direnei erakusten die, berak direla Jainkoak bereziki maite dituenak. Misiolari guztientzat esanak dira San Paulok Kolosarrei zuzendutako hitzak: «Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero, jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz» (Kol 3, 12).

3. *Aita obedientzian*

Misiolari ez da bere ametsak betetzea irrikatzen duena, baizik bere ametsak Jainkoaren borondatearen bidean jartzen dituenak, bene-benetako obedientzian. San Joseren etsenpluari jarraituz, misiolariak bere bizitzan ikasten du, askatasunerako bidea obedientziara ohitzetik igarotzen dela. Beste norbaiten gidaritzan onartzetik datorren askatasuna aurkitzea da kontua...

4. *Aita harrera onean*

Besoak zabalduta hil zen haren zerbitzari garenez, misiolariak, Josek bezala, oso ondo daki, ez duela besoak gurutzatuta egoteko eskubiderik. Gainerakoan, bere burua argal eta bekataritzat daukaten guztiek Jesusen besoetan onartuak izatea dute etorkizun, hau da, misiolariaren harrera

ona. Misiolariari dagozkionak dira San Mateok azken judizioari buruz Ebanjelioan esandako hitzak: «Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten» (Mt 25, 40).

5. *Ausardia sortzailearen Aita*

Pentsa dezakegu nolako buruhaustea jasan izango zituen San Josek Herodesen trikimailuak edota Egiptora ihes egitekoan izandako arriskuak saihesteko. Baina nork esan zuen Jesusen zaindariaren eginkizuna arrosa-bidea izango zenik? Beren bizitzan nabaritu izan dute misiolariak Jesusen hitz haien egia: «Gogoratu esan nizuena: "Morroia ez da nagusia baino handiago". Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere» (Jn 15, 20).

6. *Aita langilea*

Zerbaitegatik izango da maiatzaren 1ean San Jose Langilearen jaieguna ospatzea. San Jose, izan ere, hori zen: «langilea». Asko eta ondo lan egiteaz gainera, gozatu egiten zuen bere lanean. Berentzat hartzen dute misiolariak San Pauloren esaldi hura: «Niri dagokidanez, oso gustura emango dut dudana eta naizen guztia zuengatik» (2 Ko 12, 15).

7. *Aita itzalean*

Izenburu hau du, hain zuzen, San Joseren bizitzari buruzko eleberri ederrenetako batek: «Aitaren itzala (Nazareteko Joseren historia)»; Jan Dobraczynski poloniarrek idatzia da. 'Aita itzalean' izateak emankor izatea esan nahi du, baina kanpaiak jotzen aritu gabe, zerbait hartzen ari balitz bezala ematea, ezkerreko eskuak ez jakitea zertan ari den eskuina... Eta horrela, ez dezagula zalantzarik izan, misiolarien bizierako gauzarik baliotsuena ez dela beraietaz munduak ezagutzen eta txalotzen duena, baizik eta Kristoren bihotzaren aldarrikatzaile izatea, Kristok aukeratuak izan baitira munduari dion maitasuna hots egiteko.

Gonbit egiten zaigu PATRIS CORDE Gutun Apostolikoa arretaz irakurtzera, eta fedez eta itxaropenez San Joseri eskatzera, eman diezagula aita-bihotzez misiolari izatea.

- + Jose Inazio Munilla Aguirre Donostiako gotzaina
- + Juan Carlos Elizalde Espinal Gasteizko gotzaina
- + Joseba Segura Etxezarraga Bilboko Elizbarrutiko gotzain administratzaile

ELIZBARRUTIKO MISIOEN SAN JOSE eguneko kanpainarako liturgia – 2021-03-19

“MISIOA SENIDETASUNA DA” “LA MISIÓN ES FRATERNIDAD”

SARRERA:

Egun on (arratsalde on) eta ongi etorriak jai honetara!

Bai, jaieguna da gure Elizan, San Jose Mariaren senar eta Jesusen aita, mundu osoko Elizaren eta Euskal Elizbarrutietako Misioen zaindaria gogoratzeko eguna. Aurten, gainera, San Joseren urtea ospatzen dugu eta, horregatik, merezi duen bezala baloratu nahi dugu, gizon langile, zintzo eta zuhurra izan baitzen. Josek, Mariarekin batera, Jesusen auziari eskaini zion bere bizitza, senidetasun eta elkartasunezko bizimodua sortuz behartsuen, gaixoen, gosetien eta borondate oneko pertsonen alde.

“Misioa senidetasuna da” goiburuaen haritik ospatzen dugu gaur Euskal Elizbarrutietako Misioen kanpaina, 72 urteko konpromisoa, Elizen arteko maitasunezko esperientzia.

Anai eta arreba garela sentituz, pozez ospa dezagun Eukaristia hau.

BARKAMENA:

A.- Beti ez dugu senidetasunik sortzen gure elkarte, lan eta gizarte bizitzan. Pertsonalismoarako joera nagusitzen da. Apaltasun eta zintzotasunez, barkamena eskatuko dugu.

- Askotan, besteak baino hobe eta nagusitzat dugu geure burua. *Erruki, Jauna.*
- Bidean aurrera egiten dugu bizitzako bide-ertzetan daudenak botata utziz. *Kristo, erruki.*
- Nekeza egiten zaigu, beren jatorri, kultura, erlijio eta gizarte edo ekonomia egoera dela-eta, desberdin direnak hartzea eta zerbitzatzea. *Erruki, Jauna.*

A.- Jainko Aita errukitsua, barkatu gure bekatuak, hori lagungarri baitugu elkar barkatzeko eta betiko bizia jadesteko. Amen.

HITZA. Oharra Hitzari:

Gaurko irakurgaietan entzungo dugunez, David eta Abrahamek uste osoa dute Jainkoarengan eta, giza itxaropen eta logikaren aurka, Jainkoaren esku uzten dute beren misioa, eta asmatu egiten dute.

Irakurgaiak: 2 Samuel 7, 4-5a. 12-14a. 16; Erromatarrei 4, 13.16-18. 22; **Mateo 1, 16. 18-21. 24a**

Oharrak homiliarako

Euskal Elizbarrutietako Misioak, 72 urtetik gorako historiarekin, senide maitasunaren esperientzia dira, misiolari bizitzaren DNA: hiru Elizbarruti egitasmo berean elkartuta. Biziz eta senideen aldeko zerbitzuz beteriko misiolari esperientzia da; kristau elkarteetako gizon eta emakumeekin batera eliz eta gizarte errealitatearen ardatz eraldatzailea den senidetasuna gauzatzeraz garamatzan misiolari esperientzia.

Misioa senidetasuna da: Bidera ateratzea da, beste leku eta kultura batzuetako anai eta arrebeekin bat egiteko; *elkarren ardura hartzeko senez, kanpoalde guztiak barne hartzen dituen abentura amaigabea besteak onartzeko gaitasun handiagora zabaltzea da. Jesusek zioen: Zuek denak anai-arreba zarete (Mt 23, 8) FT 95*

Misioa senidetasuna da: Zuzentasun eta senidetasun gehiagoko mundua egitea da. *“Elkartearen, batzuen aldetik ondasunak metatzearen gainetik denon bizia lehenestearen ikuspuntutik pentsatzea eta jokatzeko da. Pobretasunaren, desberdintasunaren, lanik, lurrik, bizilekurik ezaren, gizarte eta lan eskubideen ukatzearen egiturazko arrazoiaren aurka borrokatzea ere bada” (FT116) “Gizaki bakoitza norbere anai eta arrebatzat hartzea da”. (FT180)*

Misioa senidetasuna da: Beste hainbat talde eta norbanakorekin jardutea da senidetasuna sortuz. *“Elkar zaintzeari begira egiten diren zein txikiz beteriko maitasuna zibil eta politikoa ere badela eta mundu hobearen eraikuntzari begira egiten diren jarduerak guztietan agertzen dela aitortzea da” (FT169)*

laz ezin izan genuen Elizbarrutietako Misioen Eguna nahi bezala ospatu; egoera hala-moduzkoa da oraindik, baina ez ditugu gu baino okerrago dauden herrialde txiroetako anai eta arreba ahaztu nahi. Misiolari konpromisoa senidetasunaren isla da, gure begi eta gure esku dira.

Josek ez zuen argi ikusten bere etorkizuna, baina Jainkoaren eskuetan jarri zuen bere burua konfiantza osoz. Misiolari etorkizuna Jainkoaren eskuetan utzi nahi dugu, Berak adore eman diezagun eguneroko lanean eta pertsona gehiago dei ditzan.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA:

A.- Mundu osoan hedatutako senidetasuna pertsona eta gizarte bezala hazteko sistemarik onena dela diosku Frantzisko Aita Santuak. Egin dezagun otoitz.

1.- Elizaren harri bizi sentitzen garenok maitasun, erruki eta samurtasunez beteriko senide harremana lan dezagula Jesusek bezala, legamiak orean bezala, kristau elkarte eskuzabala eta gizarte gizatiarragoa eraiki dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

2.- Samariar on bezala, gure munduan zauritu eta zapalduak aurkitzean bidean aurrera egiten ez duten misiolarien alde. Eska diezaiogun Jaunari.

3.- Gure gizartearen zerbitzari izateko aukeratutakoen alde, erantzukizunez jardun dezaten askoren heriotza dakarren sistema bidegabe hau aldatzeko. Eska diezaiogun Jaunari.

4.- Misioko herriek bizitza osoan jasaten duten pandemia nagusia, gosea da. Misiolariei lagun diezaiegula hemen senidetasunez, eskuzabaltasunez eta elkartasunez biziz, behartsuei eta beren beharrezaneiei irekita. Eska diezaiogun Jaunari.

A.- Entzun, Jauna, gure otoitzak. Gizon eta emakume guztien zorionerako sortu zenituen ondasun guztiak eta horien gozamenetik kanpo dauden behartsuen alde senidetasunez eta elkartasunez jokatzera bultzatzen gaituen bihotzetik sortutakoak dira. JGJ bitartez.

AGURRA

San Jose egunean bildu gara kristau elkarte bezala gure misiolari konpromisoa gogoratzeko. Jarrai dezagun fedean sendotzen gaituen misiolari bizitza gure parrokia eta pastoral barrutietan sustatzen.

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN 2021eko KANPAINAREN ARLO TEORIKOA

“MISIOA SENIDETASUNA DA” “LA MISIÓN ES FRATERNIDAD”

Martxoa, hilabete misiolaria da Bilbao, Donostia eta Gasteizko elizbarrutietan. Hiru elizbarrutiek martxoaren 19an, San Jose egunez, ospatzen dute kanpaina.

Aurtengo abiapuntuak ere, hau da, bizi dugun egoerak, baldintzatu egingo du kanpaina. Gaur egungo inguruabarrek komunikaziorako, misiolari sustapenerako bide berriak bilatzera garamatza. Kanpaina honetan 3 helburu berezi gehituko dizkiegu.

1. **Misiolari alderdia baloratu eta sustatu.** Misioaren mundu-mailako alderdia agertzera eman nahi dugu.
2. **Misiolari alderdia itxaropen-iturri bezala aurkeztu.** Misiolariak kristau elkarrekin, herritarrekin bizi dira eta beraiekin batera jarduten dute zuzentasun eta senidetasun handiagoko munduaren, **itxaropen-iturri den Jainkoaren Erreinuaren** eraikuntzan.
3. Frantzisko aita santuaren ***Fratelli Tutti*** delakotik **Misioaren senidetasun-sena geure egin.**

Hasieran esan dugunez, inguruabar hauetan ez dugu geldirik geratu nahi, aurrera egin nahi dugu geure sormena garatuz: gizarte sareei indarra eman eta online egin daitezkeen jarduerak pentsatu. Horretarako, ibilaldi birtuala prestatu dugu EEEEMMen hainbat egitasmo ezagutu ahal izateko.

Garizuma aldiko ostiralez emango diren urrats solidarioak izango dira. Hainbat lekutan ari diren misiolariak nola lan egiten duten ezagutzeko, Elizen eta herrien arteko senidetasuna agertzera ematen duten Elizbarrutietako Misioen egitasmo esanguratsuak aurkezteko aukera da:

Aukera ona da, egitasmoen eta zuzeneko lekukotasunen bidez, parroketatik eta misioetako kontuetatik gertu ez dauden pertsonengana iristeko. Horrela egitasmo horietako protagonistei elkartasuna adieraz diezaiekete, EEEEMMen inguruan beren jakin-mina piz daiteke eta, etorkizunean konpromisoa har dezakete, diruz laguntzeko edo boluntario bezala jarduteko.

Misioa zergatik den senidetasun jakin aukera da:

Behartsuenalde egitea da

-Umezurtzei harrera egiten dieten emakume alargunak, **senidetasuna da** (Wamamas Kongoko E.D.)

-Pandemia aldian, dituzunak eta ez dituzunak familia bati laguntzeko eman, **elkartasuna da** (Monte Sinai-Ekuador)

Gizaki guztien duintasuna eta berdintasuna aitortzea da

- Banatutako arrozaren sena, maitasun-trukea, alaitasun eta poza lantzea, elkarriketa, irudimena, edertasuna, elkarrengandako konfiantza, **senidetasuna da (JMB)**

-“Ahal duenak bere burua salba dezala” formula neoliberalak “bat eginik gehiago gara” elkarte egitasmoaren oihuaekin gaitortzea, **senidetasuna da (JMB)**

San Jose mundu osoko Elizaren zaindari izendatu zuteneko 150. Urteurrenean, har dezagun Joseren ereduak: *“itxura batean, ezkutaturik edo “bigarren lerroan” dauden guztiek salbamenaren historian nagusitasun paregabea dutela gogoratzen digu. Guzti horiei –dio aita santuak ‘Patris Corde’ gutun apostolikoan-, zuzentzen zaie aitormen eta esker oneko hitza”...* Horien artean daude misiolariak, elkarrengandako pastoral eragile eta katekistak,... herritarrekin bat eginik behartsuenen alde jarduten dutenak, une zailetan, besteak joaten direnean, geratuz, patu bera izanik, konponbide sortzaileak bilatuz, behartsuen fede apal bezain sakonetik ikasiz, haiekin bat eginez beren borroketan, eroapenean, erresistentzian. **Haiek itxaropen-iturri dira eta Misioa senidetasun dela erakusten dute.**

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA ESKERRIK ASKO!

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik **ESKERRAK** emon gura deusueguz urtean zehar Misioetan erakusten dozuen eskuzabaltasunagaitik eta egiten dozuen guztiagaitik.

Taldeek, parrokiek, eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrian materialei aurre egiteko balio dauala esan gura deusuegu.

Misinoen jardunaldia dala-eta, eskerrak emon gura deuseguz euren misiolari zerbitzuagaitik eta eskerrak emon gura deusueguz diruz laguntzen deuskuzuenoi, hori ezinbestekoa da-eta, misiolari egitekoak aurrera egin daian.

Banku-eta kutxa-zenbakiak gogoratzen deusueguz, nahi edo ahal izan ezkeror dirusarrerakegin daizuezan. Sarrera horreek egiterakoan, ez ahaztu **PARROKIAREN IZENA ETA DOHAINTZA NONDIK EGITEN DAN** jarrea.

KUTXABANK-BBK _____ **ES52 2095 0000 71 2000055574**

LABORAL KUTXA _____ **ES96 3035 0019 99 0190016957**

BIZUM _____ **00897**

Misiolari guztien erakundearen izenean, agur bero bat.

TOPAKETAK ON LINE: "ELKARTASUN URRATSAK"

EGUNA	ORDUA	LEKUA	JARDUERA
Otsailak 26 , ostirala	19:00	On line	San Isidro - EKUADOR "Kulturaren sustapena" proiektua
Martxoak 5 , ostirala	19:00	On line	Pemba - MOZAMBIQUE "Nesken etxea" proiektua
Martxoak 12 , ostirala	19:00	On line	El Alto BOLIVIA UTASA proiektua
Martxoak 19 , ostirala		ELIZBARRUTI OSOAN	ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN EGUNA

